

## Pinochet

*Deia*, 1983-09-14.

Ezagutzen dugu *salbatzaileen* arraza ustela.

Allenderen lagun lehialenetakoa bezala agertu zen azken ordurarte: oraindik *irailaren 9an* (1973), altxamendua lehertu baino bi egun lehenago, eta honek deituta, joan zitzaion Pinochet paisanoz jantzita: Presidenteak azaldu zion *Democracia Cristiana*-k hauzitan jarri zituenak plebizito bidez erabakitzeke asmoa. Beti bezala, errespeto handiz, itxura handiz eta!, entzun omen zion; eta Allendek ez zuen militarren lehialtasunaz susmorik izan.

*Irailak 11* eman zuen Pinochet berak kolpea.

Allendek ez zuen errenditu nahi izan; 34 urte aurretik orduan Presidente Aguirre Cerda-ren ministro zela honi entzun bezala erantzun zuen Allendek orain: "Errepublikako Presidenteak ez da fakzioso baten mende jartzen, eta ez diot hemendik ihesari emango". Aguirrek sortea izan zuen, altxamendua zapuztu zuen; Allendek ez ordea: ordu batzu barru bonbaz eta tiroz egoitza xehatzen ari zirela, azkeneko bost gizonekin bigarren bizitzako lehioetatik tiroka ari zela harrapatu zuten militarrek atzetik. Allendek bere buruaz beste egin zuela esaten dute; ezin da hau probatu, seiak hil bai zituzten, eta hiltzaileek ez dute bere burua salatuko. Geroztik 10 urte justu pasa dira.

Hor dago inoiz baino harroago azpijanean armada osoarekin kolpea ematera ausartu zen kobardea; 10 urtean egin ditu demokrazirako promesa ustelak, eta ez du herriaren gorrotoaz inguratzea besterik lortu. Orain diferentzi batekin: ez zaio lagunik geratzen; bere ministroaz ere ez da fidatzen, kolpea eman zuanean hurbil zuen *Democracia Cristiana* bera ere aurka jarri zaio.

Allenderen gobernuak egingo zuen zuzengabekeriarik. Baditut garai hartan Chile-n exilatuta bizi ziren senideak eta lagunak; egia da, noski, komunismoaren aldeko azpijanetan batzu lotsagabe zebiltzela. Iparramerikarren joko baldarrak ez ziren, bestalde, bide horretara bultzatzen besterik egin.

Baina militarren bideak ez du demokraziara inor eramango.

Espanian ere izan ziren Franco-ren odol-olatu ikaragarriaren gainean estatu mailako Kristau Demokrazia lortuko zutela uste izan zutenak; ez alperrik eta ez dohainik! gure herriak (eta euskal apeztegiaren gehiengoa eta gotzaia bera ere herri zirela) egin zuen aukeraren meritua uka ezina da: demokrazi bidez aukeratutako erregimenaren alde, demokrazia praktikoaren alde, jokatu zuen.

Asko sufritu du gure herriak harrez gero; denetarik entzun eta jasan behar izan ditu urtetan, oraindik ere!; baina ezin diote lasterbidea aukeratu zuela aurpegiratu.